

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA MANKOMUNITATEA**  
*Iragarkia*

***Aurrena. Deialdiaren helburua.***

Deialdi honen helburua, lehiaketa irekiaren bidez Lan-poltsa bat osatzea da, ondokoetarako balioko duena:

- a) Irakasleak hartzea Leintz Udal–Euskaltegian eskolak emateko, behin–behineko ikasle hazkundera dela–eta.
- b) Oro har, *Leintz Udal Euskaltegiko langileen hutsuneak betetzea*, haiek lanerako aldi baterako ezintasun edo baja egoeran gertatzen direnean, edota beste edozein arrazoiengatik lanpostuan ez daudenean.

Zentzu honetan Leintz Udal–Euskaltegiak lan–poltsa bat osatu behar du, eta bertatik izendatuko dira Leintz Udal–Euskaltegian irakasle lanak betetzeko.

Lanaldia urtero zehaztuko da, eta bete behar den lanpostuaren ezaugarriak kontuan izanik helburu horrekin onartuko den lanegutegiaren arabera egingo da. Lanpostuari dagokion soldata UDALITZen zehaztutako 13. mailari dagokiona izango da.

***Bigarrena. Zereginak.***

Deialdi honen helburu den lan–poltsa honen bidez izendatutako langileek ondoren zehaztuko diren zereginak egin beharko dituzte. Era berean, Mankomunitateak zehaztutako helburuak lortzeko izendatu den pertsonaren gaitasun eta ahalmen profesionalekin bat, aginduko zaizkion beste lan batzuk ere egingo ditu.

- a) Kalitatezko klaseak eman.
- b) Euskaltegiaren programazioaren tajuketan parte hartu.
- c) Programazioaren diseinuan parte hartu.
- d) Sarrera eta ebaluazio probak sortu, jarri eta ebaluatu.
- e) Bere ardurapean dagoen mailari dagozkion oroitidazki edo memoriak idatzi, irakasle–klastroak egingo dituen bileretan aztertzeke.
- f) Material didaktikoa sortu eta klaseratu.
- g) Koordinazio lanetan partaide eraginkorra izan eta bilera horietan hartutako erabakiak aurrera eramane.
- h) Irakasle klastroaren bileretan parte hartu.
- i) Liburutegi, bideo–bilduma, eskolaz kanpoko jarduera eta abarren gainean zuzendariak agindutako lanak egin.

- j) Ikasleen asistentzia kontrola eraman.
- k) Bere burua etengabe jantzi hizkuntzen didaktikan.
- l) HABEren akreditazio-azterketetan aztertzaile lanak egin.

### ***Hirugarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak***

Ondorengoak bete beharko dira onartua izateko eta, balegokio, lehiaketan parte hartzeko:

- a) Espainiar nazionalitatea edo EBeko herrialderen batena izatea, edo horri buruzko hitzarmena duten herrialdeetakoren batena izatea.
- b) 18 urte beteak izatea eta funtzio publikoko arloko oinarrizko legeek adinarengatik derrigorrezko erretiroarentzat jarritako adinerako 10 urte baino gutxiago falta direneko adina gainditua ez izatea.
- c) Irakasle eskola edo Unibertsitate Lizentziaduna izatea edo horietakoren bat lortzeko moduan izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako. Halaber, onartzekoa da bere garaian HABEk Euskaltegietako irakasleentzat egin zituen homologazio frogak gainditu zituzten irakaslegaiak.
- d) Laugarren hizkuntz eskakizunari dagokion ezagutzaren jabe dela egiaztatzea oposizioaldian.
- e) Lanpostuaren berezko egitekoak normaltasunez burutzea galerazten duen gaixotasun eta akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- f) Disziplina espediente bidez inolako Administrazio Publikoren zerbitzuetatik bazterturik ez egotea edota egiteko publikoetan aritzeko ezgaiturik ez egotea.

### ***Laugarrena. Eskabideak aurkeztea***

Lehiaketan onartua izatea eskatzeko eskabideak, Leintz Udal-Euskaltegiko lehendakariari zuzenduko zaizkio, irailaren 16a baino lehen eta ondoren zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte, baztertuak ez izateko:

- a) Deialdiaren 3. oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako, f) atalean adierazi dena izan ezik. Era berean, lehiaketaldian baloratuko diren merituei buruzko datuak ere adierazi behar dituzte, behar bezala egiaztaturik. Eskabide-orriarekin batera azaltzen eta egiaztatzen ez direnak ez dira baloratuko.

- b) Horiez gain, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko da eskariarekin batera:

—NAren fotokopia.

—Deialdian parte hartzeko eskatu den tituluaren fotokopia.

—Eskatutako hizkuntza eskakizuna lortua dela frogatzen duen jatorrizko dokumentua edota konpultsatutako fotokopia.

—Eskabidean adierazitako merituak frogatzen dituzten jatorrizko dokumentuak edota konpultsatutako kopiak, lehiaketaldian baloratu ahal izan daitezten.

Herri Administrazioetan betetako zerbitzuak organo eskudunak luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, kategoria profesionala eta betetako lanpostua, burututako funtzioak, lan egindako denbora eta lanaldi erregimena zehaztuz. Enpresa pribatuetan izandako esperientzia enpresak luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, betetako lanpostua eta burututako funtzioak, lan egindako denbora eta funtzio horietan emandako denbora zehaztuz. Gainera, Gizarte Segurantzako ziurtagiria beharko da, edo, hori ezean, agiri fiskala. Lan kontratuaren kopia ere baliozkoa izango da, Gizarte Segurantzako ziurtagiriarekin batera aurkezten bada.

Langile autonomoek lizentzia fiskalaren kopia beharko dute, autonomoen erregimenera egindako kotizazioen ziurtagiria edo jarduera ekonomikoetarako zergan altan egondako denborari dagokion ziurtagiria, egindako lan profesionali dagokien dokumentazioaz gain.

Leintz Udal-Euskaltegian egindako lanak eta esperientzia profesionala, eskabidean adieraziak izan badira, beti ere, ez dira dokumentu bidez frogatu beharko eta izangaien norbanako espedienteetan jasoak diren datuen arabera baloratuko dira.

Prestakuntza ikastaroak egiaztatzeko, ziurtagiriaren kopia beharko da, ikastaroa eman duen erakundearen izena, ikastaroaren izena, iraupena, eta ahal bada programazioa. Ikastaroaren iraupena ordutan adierazi ezean, epaimahaiaren esku geldituko da baloratu edo ez erabakitzea.

Eskabideak aurkezteko epea hau izango da: 2011ko irailaren 5etik 2011ko irailaren 16ra bitartean.

c) Eskabideak, behar bezala izapidatuak, Leintz Udal-Euskaltegiaren Erregistro Nagusian aurkeztuko dira (NAFARROA, 2 - 4 - 20550 ARETXABALETA)

Era berean, urtarrilaren 13ko 4/1999 legearen aldaketa kontuan hartuta Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legea onartzeko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 atalak xedatutako Herri Administrazioen erregistroetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Leintz Udal-Euskaltegiko lehendakariari zuzenduko zaizkio eta dagokion funtzionariak data eta zigilua jarri beharko die, eskabideak aurkezteko epearen barnean.

### ***Bosgarrena. Izangaiak onartzea. Deialdiak eta jakinarazpenak.***

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du Leintz Udal-Euskaltegiko lehendakariak eta Leintz Udal-Euskaltegiko iragarki taulan argitaratuko du.

Era berean, erabaki horretan bertan agertuko dira, epaimahai kalifikatzailearen kide titular eta ordezkoen izendapena.

Aipatutako zerrendatik kanpo geratu diren izangaiek 5 egun naturaleko epea izango dute, iragarki taulan argitaratutako egunaren biharamonetik kontatzen hasita, zerrendatik kanpo geratu izana arrazoitu duten akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko.

Behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat hartuko da, erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz. Erreklamaziorik aurkeztuz gero, onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeko aurrekoaren modu berean argitaratutako den erabaki berrian.

Hautaketa prozesuari buruzko bai epaimahaiaren iragarki eta jakinarazpen guztiak, Leintz Udal-Euskaltegiaren iragarki taulan argitaratuz egingo dira.

### ***Seigarrena. Kalifikazio epaimahaia***

Merituak kalifikatuko dituen epaimahaia honako hauek osatuko dute:

#### ***Epaimahaiburua:***

— Leintz Udal-Euskaltegiko lehendakaria edota honek gaitutako ordezkaria.

#### ***Epaimahaikideak:***

—Batzorde Gestiogileko-kideak

—Udal Euskaltegiaren zuzendaria.

—Langileen ordezkari bat, Euskaltegiak duen sindikatu-ordezkaritzak izendatua.

#### ***Idazkaria:***

—Aretxabaletako udaleko idazkaria.

Epaimahaia ezingo da eratu kideen erdia baino gehiago bertaratuko ez balitz eta, nolahi ere, han izan beharko dute beti Epaimahaiburuak eta idazkariak. Erabakiak gehiengoaren botoz hartuko dira eta berdinketa gertatuko balitz, epaimahaiburu

lanetan diharduenak erabakiko du. Epaimahaiaren idazkariak ez du botua emateko ahalmenik.

Epaimahaiaren kideek ezin izango dute esku hartu, eta izangaiek ezetsi ahal izango dituzte, Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legearen 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak egindako aldaketak kontuan hartuta.

Epaimahaiak hartuko du oinarri hauek ezartzerakoan sor daitezkeen zalantza guztien gaineko erabakia, bai eta aurreikusiak ez dauden egoeretan zer egin behar den ere.

### ***Zazpigarrena. – Aukeratzeko prozesua***

Meritoak honela puntuatuko dira:

a) Bete behar den lanpostuarekin lotutako zereginak burutuz Herri Administrazioan egindako lanagatik; hileko 0,20 puntu, gehienez 8 puntura arte.

b) Bete behar den lanpostuarekin lotutako zereginak burutuz Enpresa Pribatuan egindako lanagatik; hileko 0,10 puntu, gehienez 5 puntura arte.

c) Pedagogian edo Euskal Filologian lizentziaduna izatea: 3 puntu.

d) Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten gai osagarrietan beste prestakuntza, eta, oro har, lanekoak izan beharrik ez duten jarduerak, Epaimahaiaren iritziz izangaien lanbide prestakuntzan hobekuntza eragin ahal izan badute. Gehienez ere 3 puntu.

15 orduetik 50 ordu bitarteko bakoitzagatik: 0,25 puntu.

51 orduetik 100 ordu bitarteko bakoitzagatik: 0,50 puntu.

101 orduetik 200 ordura bitarteko bakoitzagatik: 1,00 puntu.

201 orduetik 300 ordura bitarteko bakoitzagatik: 2,00 puntu.

300 orduetik gorako bakoitzagatik: 3,00 puntu.

Merezimendu atal honetan, lor daitekeen gehienezko puntuazioa 6 puntukoa izango da

### ***e) 4. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatuta: 3 puntu***

### ***f) Elkarrizketa pertsonala***

Derrigorrezkoa

Elkarrizketa egingo da izangaiek lanpostuaren ezaugarri eta eginkizunetara egokitzekeo duten gaitasuna neurtzeko. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira ariketa honetan.

**Zortzigarrena. *Merituen kalifikazioa, Epaimahaiaren proposamena eta agiriak aurkeztea.***

Elkarrizketan eta lehiaketaldian lortutako puntu guztiak batu eta horixe izango da izangai bakoitzaren azken kalifikazioa.

Elkarrizketaren eta merituen kalifikazioa amaitzean, epaimahaiak iragarki taulan jarriko du jendaurrean lehiaketa gainditu duten izangaien zerrenda, puntuaziorik handienetik txikienera zerrendatuta eta lan-poltsa osatuko dute, lortutako puntuaziorik handienetik txikienerako ordenan.

Lan-poltsa osatzen duten izangaiei dei egin ahal izango zaie irakasle lanak betetzeko aldi baterako langilego arloan Leintz Udal Euskaltegian sor daitezkeen beharrak betetzeko.

Lan-hitzarmenen iraupena Udal Euskaltegian irakasle lanak betetzeko sor daitezkeen beharren arabera izango da.

Leintz Udal Euskaltegiak izangaiarekin harremanetan jartzerik lortzen ez badu edota izangaia Leintz Udal Euskaltegiaren deia erantzuten ez badiu, lan-poltsan agertzen den hurrengo izangaiari deituko zaio.

Lan-hitzarmenek ez dute inoiz gaindituko lan-poltsa indarrean dagoen epemuga.

Lan-poltsa osatzeko proposatutako izangaiek ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte, epaimahaiaren akta argitaratzen denetik kontatuta 10 egun igaro baino lehen:

a) Egitekoak betetzea galeraziko dion inolako gaixotasun edota akats fisiko nahiz psikikorik ez duela egiaztatuko duen mediku-ziurtagiria. Elbarritasunen bat duten izangaiek, gainera, dagozkien egitekoak betetzeko gai direla adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

b) Disziplina espedienteren baten bidez edozein administraziotan jarduteko ezgaiturik ez dagoela edota 53/1984 Legean eta 598/1985 Errege Dekretuan aurrikusten diren bateraezineko zioetan ez dagoela sartuta dioen zinezko aitortpena.

c) Deialdi honetan eskatutako tituluaren fotokopia, behar bezala konpultsatua.

***Bederatzigarrena. Gora-beherak.***

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak erabakitzeke eta oinarri-arau hauetan ezarritakoarekin bat etorriz, lehiaketa ondo burutu dadin behar diren erabakiak hartzeko.

Deialdia honen, honen oinarrien eta haietatik eta epaimahaiaren jardueretatik sor daitezkeen administrazio-egintza guztien aurka jo ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroren 26ko 30/1992 Legean jasoak dauden modu eta epeetan.